

EAeko gizarte ekimeneko ikastetxeak

Patronalei arduraz jokatzeko eta gatazka ez luzatzeko eskatu diete urtarriko bigarren greba egunean

Hamaikagarren greba egunean, EAeko Gizarte Ekimeneko ikastetxeetako hitzarmena berritzeko funtsezko gaietan edukiak mahai gaineratzea eskatu diete sindikatuek Kristau Eskola eta AICE-IZEA patronalei. Bide beretik, ELA, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuek Eusko Jaurlaritzari eskatu diote utzi diezaiola greba eskubidea urratzeari eta lagundi dezala gatazka bideratzen. Gaurko grebak ere jarraipen zabala izan du eta milaka izan dira Donostiako kaleak bete dituzten langileak. 12 autobus langile bete gerturatu dira Donostiarra beste lurralteetatik. Danborrada beltz bat irudikatu dute San Sebastian egunaren bezpera probestuz, negoziaketarako patronalen jarrera beltza deitoratzeko.

Pasa den astean eta aste honetan bertan, greba bezperetan, patronalek bileretara deitu dituzte sindikatuak, baina akordioa lortzeko gakoak diren gaietan ez dute gutxieneko edukirik aurkeztu. Gai eta eduki horiek oinarri oinarrizkoak dira eta orain hiru urte hitzarmena iraungi zenetik ezagunak dituzte.

Patronalek, ordea, 'etxeko lanak' egin gabe jarraitzen dute. Adostasunerako gakoak diren gaietan ez dute hobekuntzarik proposatu. Erosahalmena bermatu gabe jarraitzen dute, lan kargak arintzeko neurririk ez dago, enplegua bermatzeko neurri zehatzik ere ez, eta sektore feminizatuentzako hobekuntzarik gabe eterri dira azken mahaira. Lanbide Heziketan zein gainerako gaietan oso eskasak diren edukiak ere ekarri dituzte.

Sindikatuek patronalei eta Jaurlaritzari eskatu diete gatazka luzatzeko estrategiak eta greba eskubidea urratzeko jarrerak alboratzea, eta hitzarmena berritzea ahalbideratuko duten edukiak landu eta lehenbailehen mahai gaineratzea. Sindikatuek erabateko prestutasuna baitute gai eta eduki horien inguruan proposamenak egonik behar bezain beste biltzeko eta adostasunak lortzeko.

Honako hauek dira sindikatuen eskaera nagusiak: lanpostuei eusteko neurri eraginkorrik; lan kargak arintzeko eta sektore feminizatuenen lan baldintzak hobetzeko neurriak; finantzazio publikoari lotu gabeko eta erosahalmena bermatzeko soldatak; eta Lanbide Heziketarako baldintza egokiak. Zentzu berean, beharrezkoak dira Berdintasun planak, euskalduntze planak eta lan Osasuna bermatzeko planak, bereziki arrisku psikosozialenak.

Sindikatuek beste hiru greba egun dituzte deitura urtarrikoan: hilaren 23, 24 eta 25.

2024ko urtarrilaren 18an



Centros de iniciativa social de la CAPV

Piden a las patronales responsabilidad y que dejen de alargar el conflicto, en la segunda jornada de huelga de enero

En la undécima jornada de huelga, los sindicatos hacen un llamamiento a las patronales, Kristau Eskola y AICE-IZEA, a plantear contenidos en temas fundamentales para la renovación del convenio de los centros de Iniciativa Social de la CAPV. Asimismo, ELA, Steilas, CCOO y UGT piden al Gobierno Vasco que deje de vulnerar el derecho de huelga y actúe para reconducir el conflicto. La jornada de hoy, 18 de enero, también ha tenido un amplio seguimiento y han sido miles los y las trabajadoras que han llenado las calles de Donostia; en total, 12 autobuses se han acercado a San Sebastián desde otros territorios. Han representado una tamborrada negra, aprovechando la víspera del día de San Sebastián, para lamentar la actitud deplorable de las patronales para la negociación.

La semana pasada y esta misma semana, en vísperas de la huelga, las patronales han convocado a los sindicatos a sendas reuniones, pero no han presentado un contenido mínimo en temas clave para alcanzar un acuerdo. Estos temas y contenidos son básicos y los conocen desde la extinción del convenio hace ya tres años.

La patronal, sin embargo, sigue sin hacer 'los deberes'. No proponen mejoras en temas clave para el consenso. Siguen sin garantizar el poder adquisitivo, no proponen medidas para aliviar las cargas de trabajo, tampoco medidas concretas para garantizar el empleo y han venido sin propuestas de mejora para los sectores feminizados. También han aportado contenidos muy deficientes tanto para Formación Profesional como para el resto de materias.

Así las cosas, los sindicatos han pedido a las patronales y al Gobierno Vasco que abandonen las estrategias para alargar el conflicto y dejen de vulnerar el derecho de huelga. Les piden que planteen, cuanto antes, contenidos que posibiliten la renovación del convenio. La parte social muestra plena disposición para recabar propuestas y llegar a consensos en torno a estos temas y contenidos.

Éstas son las principales reivindicaciones de los sindicatos: la inclusión en el acuerdo de medidas eficaces para el mantenimiento de los puestos de trabajo; medidas para aliviar las cargas de trabajo y mejorar las condiciones laborales de los sectores más feminizados; que los salarios no estén vinculados a la financiación pública y que garanticen el poder adquisitivo; y unas condiciones adecuadas para la Formación Profesional. También son necesarios los planes de igualdad, los planes de euskaldunización y los planes para garantizar la salud laboral, especialmente los de riesgos psicosociales.

Los sindicatos tienen convocadas otras tres jornadas de huelga para enero, los días 23, 24 y 25.

